

Iceberg Programa



Alkohola droga da?

HELBURUAK


Ikasleei “alkoholaren kontsumoa beraien inguruan” gai bezala harturik, emandako erantzunen ondoren, hurrengoko kontzeptuak landu:

- Alkohola edatea; noizean behin edatea.
- Alkohol gehiegi edatea; osasunarentzat gehiegizkoa eta kaltegarria den neurrian kontsumitzea
- kontsumoaren arriskua

Alkohola arriskutsuagoa da egoera jakin batzuetan, esate baterako, lanean ari garela gero gidatu egin behar badugu.

METODOLOGIA

Proposatu ikasleei iritzia emateko beherago deskribatutako egoeretan alkohola edateari buruz. Haien ustez, deskribatutakoa zergatik gertatzen den eta zer iritzi duten.



1go kasua

“Nerabe batek garagardo batzuk edan ditu erakartzen dion pertsonarekin hitz egitera ausartzen ez delako”.

Gai honen inguruan, alkoholaren funtzio deshinibitzaileaz hitz egin daiteke. Gero, irakasleak ulertarazi behar die ikasleek bere kontrolatu behar dutela egiten dutena, ez dutela produktu batzuen esku utzi behar. Hobe da sozializatzeko gaitasuna izatea, eta atsegina eta naturala izatea.

2. kasua

“Langile batek, adibidez, igeltsero, mediku edo gidari batek, alkohola edan du lansaioko atsedendian edo hamaiketakoan”

Gaiak hitz egin ondoren, azpimarratu alkoholaren eta beste droga batzuen efektu kaltegarriak, batez ere hauek:

- Norberaren eta besteen osasunean eragin ditzakeen kalteak.
- Arau-hausteen lege-ondorioak: gidatzeko baimena kentzea, lana galtzea eta baita kartzela-zigorak ere.

3. kasua

“Eskaleek alkohola edaten dute kalean”

Ulertarazi ikasleei alkoholak zer efektu izan ditzakeen pertsonengan, ondorio fisikoak soilik ez, baizik eta baita bazterketa soziala, itxura fisikoa aldatzea eta beste zenbait ere. Hitz egin alkoholarekin lotutako familiako indarkeriari buruz ere



Azkenik, ariketa hau egingo dugu.

ALKOHOLA EDATEKO ETA EZ EDATEKO ARRAZOIAK

Idatzi alkohola edateko eta ez edateko jendeak eman ohi dituen arrazoiak

ALKOHOLA EDATEKO ARRAZOIAK	ALKOHOLA EZ EDATEKO ARRAZOIAK
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤
➤	➤

Hurrengo bideoa ikusi: “Así se hace: bebidas alcohólicas”



<https://www.youtube.com/watch?v=K-0UeB23IZM>

Informazio gehiagorako:

www.info@sasoiaprevención.com